

Poliedroa osatuz



Iñaki Antigüedad
EHU-KO IRAKASLEA

rakurria dut sinplea dena ez dela existitzen, sinplifikatua baino. Mundu konplexua da gaurkoa, inondik ere, likidoa, eta bera eraldatzen joatea helbide dugunon erronkarik handiena konplexua modu eraginkorrean kudeatzea da, norabide zabal argian betiere. Hortaz, orain arte ohikoak izan ez diren behatokiak, ikusmolde-pentsamoldeak eta ekinbideak behar ditugu. Sozio-politikoan behar ere, saretuak, prozesu batera uztartuak, prozesurik gabe ez baita proiekturik.

Ildo horretan, euskal lurretan ari dira bestelako mugimendu sozial zabalak, zeharkakoak, gauzatzen. Gatazkaren ondorioak gainditze bidean ari den Sare eta herriz herri erabakitze esku bidean ari den Gure Esku Dago dira, kasurako, erreferente nagusiak. Komunean dute arazoan aurrean gizarte zibilaren parte-hartzea gauzatze modua, pertsonak helburu esan gabe pertsonak helbide izanez. Olatuen modura dihardute, joan eta etorri, indartsu zein bare, baina etenik ez duen mugimenduan.

Errealitatea poliedrikoa dela barneratuagoa dugu egun, halabeharrez. Ondorioz, prozesuak ere, ezker subiranistarenaz ari naiz, poliedrikoa behar du izan, pentsamolde linealetik urrun, gorpuzkera hori bermatzen dioten aurpegi guztiak uztartuta, pragmatismo eraldatzailearen bidetik. Hortaz, kanpora begira burujabetza prozesuak behar duen nazioarteko ezagutza politikoaz

aparte, barrura begira badago zer uztartua prozesuaren parte sentitzen direnek aukera eta bidea izan dezaten. Politika-eremu berriak behar dira, politika-eredu berriez gain, bestelako arkitectura politiko batean.

Asko esan da instituzioek eta formazio politikoek prozesuan egin dezaketenez, baita sarri euren arteko disfuntzioaz ere, baina gutxiago gizarte zibilaren protagonismoaz, oso argi baitago aurreko biek bakarrik ezin dutela, kasurik onean ere, gehiengo sozialak behar dituzten aldatetarako gauzatu eta modu iraunkorrean bermatu, ohiko lau urteko politika-alditik harago. Bestera esanda, gizarte politikoak kudeatu beharko luke gizarte sozialak sendotutako prozesua. Horretarako parte-hartze kultura etengabe sustatu behar da, arinkeriarik gabe, eta esperimentaziorako aukerak zabaldu.

Gizarte zibilaren kontzeptua den lausoaren barruan, eta horretan sartu ohi diren gai eta zabaleira askotako herri elkarteek gain, badira aparteko garrantzia hartu behar dutenak. Euskal Herrian zabal diharduten gobernuz kanpoko ikasketa-erakunde eta behatoki sozio-ekonomikoez ari naiz, era askotako mugimenduei, direnak zein behar direnak, beharrezko ezagumendua eskaintzeaz gain bihar-etziko arkitektura politikoaren diseinuan laguntzaile behar dutenak. Hori ere osatzen dute poliedroa. ■

Botoia



Edu Zelaieta
IDAZLEA

Botoi gorriaren mamuak zeharkatu zuen gure haurtzaroa, gero eta urrunago dagoen 80ko hamarkadan. Nik ordukoaz gogoratzen dudaren arabera, gerra hotzaren ondorioz, halako botoi gorri batzuk irudikatzen genituen munduko (eta batez ere munduaren) agintari ahaltsuenen bulegoetan. Esan gabe doa, iparramerikarrek egindako pelikulak lagun, errusiarrak hartzen ohi zirela mehatxu nagusizat planetaren hondamen nuklearra ekartzeko.

Haurtzaroaren mamua berriro dit iparramerikarrek eskaini diguten Obamaren eta Trumpen arteko botere-eskualdatzearen ekitaldiak: gizon

zuriaz eta gizon beltzaz gainera, egon da hirugarren protagonista bat: (gizon militar batek eskuan zeraman) larruzko maleta bat.

Ingeleseko Wikipediak agertzen duenez, besteak beste, *the button* izena ere ematen zaio maleta horri. Eraso nuklearra aktibatze ko-deak eta argibideak omen ditu *botoiak*. Kennedyz geroztiko presidente estatubatuar orok eskuratuta izan du maleta, eta karguan iraun bitartean ondo-ondoan eduki izan dute denek. Zer gerta ere.

Trumpen eskuetan dago orain egiatzko botoirik ez omen duen *botoia*. Neurez dudana joeraren kontrara, nostalgia mikorik ere ez dut sumatu. ■